

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

| GIPUZKOAN | | NAFARROAN | |
|------------------------------|--------------------|------------------------------------|-------------------|
| 0 positibo berri | 0 hildako | 5 PCR positibo berri | 515 hildako |
| 2.313 positibo guztira* | 1.543 hildako EAEn | 5.299 PCR positibo guztira | 64 ospitalizatuta |
| *Hernanin 60 Astigarragan 20 | | Sendatuak EAEn: 16.547; Naf: 6.012 | |

Azken boladan jazotako eraso sexualak salatzeke, kontzentrazioarako deia luzatu da bihar arratsalderako

Hernaniko Koordinadora Feministak, azken urteetan Hernaniko gizon gazte batek eragindako eraso berri jaso izan du, eta jakinarazi du «dagoeneko 3 eraso sexual oso larriren berri» izan duela. Hau guztia salatzeke, biharko kontzentrazioa antolatu da, 19:00etan.

HERNANI BERDINTASUNA

Azken urteetan, Hernaniko Koordinadora Feministak, gizon gazte batek eragindako «erasoen berri» jaso izan du, eta gainera, jakinarazi du, «3 eraso sexual oso larriren berri» izan duela, eta horietako bat «denboran errepikatua, eta ondorioz emakumeari itoaldi haundia sortu diona».

Hori horrela, Hernaniko Koordinadora Feministak era-

so hauen aurrean «haserre» adierazi nahi izan du. Eta mezu hau helarazi du: «eraso sexualez zabaltzen den irudia da gauean, etxera bidean bakarrik goazela gizon ezezagun batek egindakoa. Baina errealitateak erakutsi digu, hori ez dela horrela, erasotzaileak gure komunitateetakoak direla, aurretik ezagutzen ditugu, gure gertukoak, ingurukoak, gure familiako kideak, koadrilakoak, militantzia kideak, eta ez gauez, izkina ilun

batean agertzen diren mamuak. Erasotzailea ez da Txotx garaian etorritako gizon bat, edota kanpotik Hernanira bizitzera etorritakoa, ezta gau batean Hernanitik pasa zen ezezagun bat ere. Baizik eta, gure komunitateko kide bat, erasotu dituen emakumeek aurretik ezagutzen zuten pertsona hori, gerora, beraiengandik gertu egon izan da, haien ezinegona areagotuz».

Hori horrela, erasoei aurre egitea «guztioi dagokigun zeregina» dela azaldu du, izan ere «erasoak ez dira gertatzen erasotzailea monstro bat delako, baizik eta sozialki toleratzen eta, askotan, ezkututzen direlako. Horrexegatik, erasotzailea gertuko denean, salatzea, aurre egitea eta hartu beharreko neurriak hartzea ere gehiago kontatzen da.

Era berean, azpimarratu nahi dugu, indarkeria matxista gure jendartearen indarrean dauden genero harremanen ondorioetako bat dela, eta dugun arazo sozial larrietariko bat ere bai».

«Prozesu bat jarri dugu martxan»

Hernaniko Koordinadora Feministak jakinarazi du, «erasotutako emakumeen osatze eta erreparazioa helburu, eta erasoak berriz ez gertatzeko xedez, emakumeek eurek adierazitako beharretatik abiatuta, prozesu bat jarri dugula martxan, erasotzaileari hainbat betebeharrak eskakizun exijituz. Prozesuaren jarraipen bat egingo da, halaber».

«Haserre» daudela helarazi nahi izan dute, «amorratuak

eta prozesua berriro ez gertatzeko neurriak jorrotzen ari garen arren, gertatutakoa publikoki eta kalean salatu nahi dugu. Ez bada esaten, badirudi ez dela existitzen, eta bai, Hernanin eraso sexualak gertatzen dira, gure komunitateetan pairatzen ditugu, eta gure ingurukoak dira erasotzen gaituztenak. Ez ditugu onartuko, ez gara isilik geratuko!».

Hori guztiagatik, Hernaniko Koordinadora Feministak gure herrian gertatutako eraso sexualak publikoki salatzeke deialdia zabaldu du, eta «parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu».

Bihar, guzti hau salatzeke, kontzentrazioarako deia egiteaz gain, bertaratzeko deia luzatu dute, arratsaldeko 19:00etan Tiloletan. K

Etenaldi baten ondoren, Astigarragako Emakumeon Plazako muralerako argazki saioak, berriro ere martxan

Astigarragako Emakumeon Plazako murala osatzeko herriko emakumeekin zenbait saio egin ziren martxoan, Nagore Legarreta argazkilariaren eskutik, eta Koronabirusak sortutako alarma egoera apalduta, berriro ekin zaie saio hauei, eta ekainan zehar izango dira.

ASTIGARRAGA ARGAZKI SAIOAK

Astigarragako Emakumeon Plazako murala osatzeko herriko emakumeekin zenbait saio egin ziren martxoan, aipatu moduan, Nagore Legarreta argazkilariaren eskutik. Covid-19aren hedapenari aurre egiteko piztutako alarma egoera dela eta, bertan behera gelditu ziren saio hauek. Hala ere, astelehenean hasi ziren berriro argazki

saioekin, eta lehenengo parte hartzaileak Harituz elkarteko kideak izan dira.

Argazki saioetan aurretik izena emanda zutenek soilik har dezakete parte.

Guztira zortzi saio izan dira bertan behera geratu zirenak Koronabirusagatik, eta aforoa murriztu behar denez, oraingoan 11 saio egingo dira, jendea sakabanatzeko asmoarekin, eta segurtasuna bermatzeko.

Saio guztiak, hil honetan izango dira, hau da, ekainan, goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:30etara, eta arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara. Udalak jakinarazi du, egunak parte hartzaileekin zehaztuko dituela. Martxoko saioak, Erribera kultur etxeko aretoan egin baziren ere, oraingo honetan, kultur etxe zaharrean egingo dira, areto nagusian, hain zuzen.

Gainera, antolatzaileek, azaldu dute, «saioak kontingentziarako babes neurriak zorrotz beteta, eta 10 pertsonako taldeetan» egingo direla.

Saioetara eraman beharreko materiala

Hau da, saioetara eraman beharreko materiala: maskarila; kolore argiko arropak, kolore-



Ekainan zehar izango dira argazki saioak.

tsuak, bolantedunak, zapiak; udarako arropak, manga motza, tiradunak, udako galtzak, gonak; jarduera edo kirol ezberdinetako arropak; norberaren-

tzat garrantzitsua den objektuaren bat. Eta azkenik aipatu dute «jolasteko, beste emakumeekin aritzeko, konpartitzeko eta mugitzeko gogoia ez ahazteko». K



ESKAINNTZA
24 botilako kaxak: 50€
Nahieran egin ditzakezu kaxako nahasketak: Horia, IPA eta beltza
Bidalketak etxera, Gipuzkoa osoan
Eskaerak egiteko:
otsaihen@gmail.com 623 229 297





ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani



Oinarrizko Lanbide Heziketa

ELEKTRIZITATEA
ELEKTRONIKA

INFORMATIKA
KOMUNIKAZIOAK

AURREMATRIKULA
2020.06.01 - 2020.06.19

943 46 01 45 / 610 787 001
info@fpmartutene.org
fpmartutene.org

GAUR Gaur egoera aldatu eta giro nahasi samarra izango dugu. Zapa-
rradak edonoz bota ditzake, hala ere, arratsaldean euria egiteko
probabilitatea handiagoa izango da. **Min.17° / Max.22°**

BIHAR Udazken iburako eguraldia ekariko digu, tenperaturak behera
egingo du, haizea zakar ibiliko da eta giro euritsua izango dugu egun
osoan zehar. **Min.14° / Max.19°**

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko
Udala

Astigarra
Udala

Donostia
Udala

Goizuetako
Udala

Arango
Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizuetako) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948
510800 (Goizuetako) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizuetako:** Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA
GOBIERNO VASCO

GIJUNO
FORU ALDUNDIA

DOBERA
BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Dirulaguntzak atera ditu udalak, autonomo eta enpresa txikientzat

525.000 euroko diru laguntzak atera ditu Hernaniko Udalak, Hernaniko autonomo eta enpresa txikientzat, Covid-19ak sortutako kalteak «arintzeko» helburuarekin.

HERNANI UDALA

Hernaniko Udalak, aipatu moduan, diru laguntza lerro bat sortu du, Covid-19 pandemiak tokiko ekonomian sortu dituen kalteak «leundu» eta Hernaniko mikroenpresei eta norberen konturako langileei laguntza emateko asmotan. Beraz, dirulaguntza lerro sorta honetan hainbat onuradun daude, hala nola, mikroenpresak eta nobere kontura lan egiten duten langileak, «baldin eta ezarritako baldintzak betez, beren jardura geldituta edo fakturazioa murriztuta badute, Koronabirusaren krisiak sortutako neurrien

ondorioz».

Bateraezintasunak ere azaldu ditu udalak, «deialdi honetan, ezin izango dira aurkeztu eskubidea aurkeztu duten edo aurkeztuko duten mikroenpresetan bazkide diren edo parte hartzen duten norberaren konturako langile autonomoak, eta alderantziz». Era berean, jakinarazi du ezin izango dutela eskaerarik aurkeztu «Lanbidek edo beste Erakunderen batek kontzeptu bererako eman badie laguntza».

Diru laguntza poltsa osoaren kopurua, 525.000 eurokoa izango da.

Eskaerak aurkezteko prozedura

Eskaera, legezko ordezkariak edo eskatzaileak aurkeztu beharko du, udalak egindako eskabide ofizialaren erudian. Eta eskabideak aurkezteko bi modu daude: alde batetik, modu telematikoan Hernaniko Udalaren erregistro elektronikoren bidez, eta beste aldetik; modu presentzialean Herritarren Harrera Zerbitzuan, aurretik hitzordua hartuta, telefono honetara deituz 943 33 70 00. Gainera Covid-19 egoera dela eta, modu honetan ezingo balitz jendurereko arreta bermatu, eskaerak aurkezteko helbide elektronikoa jarriko da. Eskaerak jada egin daitezke eta irailaren 30 arte dago aukera. Informazio gehiago www.hernani.eus webgunean topa daiteke. **K**

Hernani ezagutzeko jolasak, jarduera fisiko eta kirol sailaren eskutik

Hernaniko Udaleko jarduera fisiko eta kirol sailak, Hernani ezagutzeko jolasak prestatu ditu, haur eta helduentzat.

HERNANI JARDUERA FISIKO ETA KIROLO SAILA

Hernaniko Udaleko JFK Sailak, Hernani ezagutzeko bi jolas prestatu ditu, etxeko txiki zein helduentzat zuzenduak, hain zuzen.

Haurrentzat, *Mugitu Hernanin barrena!* joko prestatu dute. Joko hau, altxorraren bila jolasean oinarrituta dago. Hernani kirol webgunean eta Twitterren,

haurrek bilatu beharreko lau leku izendatuko dira, eta leku bakoitzean Maialen Lujanbieren bertso zati bat egongo da. Lekuari eta bertso zatiari argazkia atera beharko zaio. Ondoren, sare sozialetan agertuko den galdetegi bete eta bidali beharko da, ateratako argazkiekin batera. Udalak jakinarazi du, sariak egongo direla, «asmazten dutenen artean, hiru opari zozketatuko dira». Ekimena gai-

nera, atzo hasi zen, eta hilaren 16ra arte iraungo du.

Helduentzat, *Buru adi-euskaraz ari-4 sari* joko prestatu da, udaleko euskara sailarekin bat eginez. Kirola webgunean eta Twitterren, galderak egingo dira, eta egoki erantzuten dutenen artean 4 sari zozketatuko dira, sari bakoitza Hernaniko kirol dendetan gastatzeko 100 euroko bonoa izango da. Astean behin, asteartetik igandera, galdera sorta bat erantzun beharko da, eta asmatzaileen artean, astelehenero egingo da zozketa. Gaztelaniara itzultzeko linka ere jarriko da. **K**

Ipuinaren ordua, gaur arratsalderako

Gaur arratsaldeko 18:00etan, ipuin kontaketa eskainiko da, Beatriz Egizabal eta Kontukantorekin.

HERNANI KULTURA ONLINE

Gaur arratsaldeko 18:00etan, Beatriz Egizabal eta Kontukantoi izango dira ikusgai, Hernaniko Udalaren Youtubeko kanalean: <https://labur.eus/>



Beatriz Egizabal izango da gaurkoan ipuinak kontatzen. Argazkia: Hltza



Berrikuntze gain, terraza haundiagoarekin hasiko du uda, Otsua-Eneak.

Udan ere, Otsua-Enean «Txox!»

HERNANI PUBLIERREPORTAJEA

Uda giroa aprobetxatuz eta horrek dakartzan planekin bat eginez, Otsua-Enea sagardotegiak atek irekiko ditu.

Hainbat berezitasun eta berrikuntzeekin emango dio Otsua-Eneak udari ongi etorrria. Izan ere, arraina parrilan eskainiko dute, aurretik enkargatuta. Normalean, legatza edo xapoa eskatzen da, baina beste berezitasunen bat nahi izanez gero ere, aukera dago eskatzeko, beti aurrez enkargatzen bada.

Sagardoa edateko aukera paregabea eskainiko du sagardotegiak, botilan eta txotxetik ere dastatu daitezke, egun bero horiek freskatzeko aparta

gainera.

Larunbat honetan irekiko ditu lehenengoz atek Otsua-Eneak udari begira, eta hurrengo astetik aurrera, egun hauetan egongo da irekita sagardotegia: ostiral gaua, larunbat eguerdia eta gaua, eta igande eguerdia. Eguerdian 14:00etatik aurrera, eta gauetan 20:30etatik aurrera.

Berrikuntze gain, terraza haundiagoarekin hasiko du uda Otsua-Eneak, beraz eguzki ederraz gozatzeko tokirik ez da faltako.

Gainera, Koronabirusak eragindako egoera honetan, prebentzio eta segurtasun neurri guztiekin itzuliko dira, denon segurtasuna bermatze aldera.

Tratu Onen Foroa, gaur arratsaldean

HERNANI ARREMANITZ

Gaur arratsaldeko 18:00etan, Biterin eskainiko da Tratu Onen Foroa, «zaintzei aurpegia aldatuz, zaintza berrantolatzea» oinarri hartuta. Antolatzaileek jakinarazi dute, «ezberdina izango dela». Izan ere, oraingo foro hau eragileei zuzenduko da, eta horregatik, hainbat eragile gonbidatu dituzte, «ahalik eta ikuspegi zabalena biltzeko eta kolektibo ezberdinei ahotsa emateko asmoz».

Kultur elkarteentzako bilera, gaur

HERNANI BITERI

Gaur, kultur elkarteentzako bilera antolatu da Biterin, arratsaldeko 19:00etan. Udalak azaldu du, 2020ko kultur programa eta jardueretarako diru laguntzen egoeraren berri emateko helburua duela bilera. Udalak dio eskertuko duela parte hartzea konfirmatzea, bai eta maskara ekartzea ere.

3D inprimaketei buruz bihar, KZguneak

HERNANI KZ GUNEA

KZ Guneak, badaramazki hainbat aste Youtubeko kanalean, zuzenean hitzaldiak ematen, eta bihar, 3D inprimatzeak dituen aukerak ezagutzeko posibilitatea izango du edonork. Datorren hitzaldia, hurrengo asteartean izango da, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara, eta Zure diru-zorroa smartphonean landuko da.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**